

Kotxe Nanoak baserritar txikiak harrapatu ditu

Elkar hartzen badute Indiako estatu gatazkatsu bateko gobernu komunistak eta herrialde hartan sorturik munduko autogile handienetako den multinazional batek kotxe gosez dauden milioika jenderi berebilerik merkeena egiteko asmoz, gurpiltzar horren aurrean gutxi dezakete nekazari txiroek.

NANO, TATA MOTORS-EN AUTOA, ikurtzat aurkeztu zuten joan den urtarrilean Delhiko Auto Expon. Hona Indiak XXI. mendeko hiritarrei eskaintzen dien kotxea: txikia, kontsumo urrikoa eta merkea. *Nanos* greko zaharrean “ipotxa” da eta *nano* Ratan Tata enpresagizonaren jaioterria den Gujaraten “txikia”. Hirian bost litro erregai baino gutxiago kontsumituko du eta bidean lau inguru. 100.000 rupia kostako da, 2.300 dolar, 1.600 euro inguru.

Ipar Amerikan eta Europan derri gorrezkotzat jotzen diren osagai batzuk falta ditu, baina kotxea da, ez da rickshaw (oinezko batek edo bizikletak lorrean daraman gurdia) motorduna. Mototik autorako jauzia egin nahi duten herrialdeetan jokatu nahi du aspaldi Espainian Seat 600ak edo Frantzian Citroën 2CV “bizaldikoak” burutu papera. Txasisaren puskak soldatuta edukitzeko partez rematxatuta eduki arren, bost pertsona eramateko kotxea da, bost ate eta guzti.

Europarrok ezagutu beharko genuke Ratan Tata. Gizon honen Tata Motors hogeigarrena da munduko autogile handien zerrendan. Konpainia Indiako hamar handienetarik da. Indiaren independentzia eta laster, 1945ean, tren lokomotoiak ekoizten hasi zen. Lehenengo autoa 1954an fabrikatu zuen, Daimler-Benzekin batera. 2004an Daewooren kamioi

atala erosi zuen, Tata-Daewoo izen berriz bataiatuz. Gero Zaragozako Hispano Carrocera erosi zuen. Eta aurten bertan, Tata Nano berria aurkezteaz gain, Fordekin batera Jaguar-Land Rover erosi du. Ratan Tata abiadura, prezio eta potentzia guztietan lehiatzeko jaio baitzen.

Lortuko ote du Tatak urte bukaerarako martxan edukitzea Nanoak ekoizti behar dituen katea Singur herrian, Mendebaldeko Bengalari? Bi urtez han estutzen joan den korapiloa azkar askatzen ez badute, nekez. Hamabost egun baino gehiagoz eduki dute blokatuta Singurreko lantegia eraikitzeke obra lurra ostu dietela salatzen duten nekazariak eta irail hasieran Tatak adierazi du balitekeela usina beste nonbait eraiki behar izatea. Udan jakin dugu, baina istilua aspalditik zetorren.

2007ko maiatzaren 25ean Singurren nekazaritza etxalde txiki bateko jabea ukuiluko sabaitik zintzilik azaldu zen urkatuta. Bizilagunek kazetariari esan zieten Prasanta Das burumakur zebilela azkenaldian. Ez motiborik gabe. 43 urteko Prasanta Dasekin batera haren familia osoa bizi zen Nanoa egiteko kendu zieten lurretik: 65 urteko aita, Tapas eta Sushata anaiak, hiru haurrideen emazteak eta umeak. Prasantak alargunaz gain 9 eta 6 urteko bi alaba utzi zituen.

Suizidatzeko egun seinalatua aukeratu zuen laborari etsituak, maiatzaren

Tata Motors konpainiaren Nano autoa –lerroon ondoko argazkian ageri dena– munduko autorik merkeena izango omen da: 100.000 rupiatan salduko dute (2.300 dolar, 1.600 euro). Erregai garestien aroan, Nanok izan behar luke garapen bidean diren herrialdeetako biztanle askok eskuratzeko moduko berebilen aitzindari... lehen autoak salgai garaiz jartzekotan. Kotxe ñimiñoa ekoizteko lantegia Singurren eraikitzeke, lurra ofizialki erosi egin zizkien bertako nekazari Bengalako gobernuak, Indiako Alderdi Komunistak kudeatzen duenak. Baina auzitegiek ere aitortu dute 404 hektareetako asko desjabetzaz kendu zizkiela. Soumik Kar izeneko baten argazkiek erakusten dituzte Tata Motorsen usina berriaren eraikitze lanak eta inguruetan oraindik laborantzari diharduten herritarrek eta baratze joriak.

25 hartantxe betetzen baitzen urtea Singurreko baserritarren eta agintari politikoen babesean lurra erosi edo ostu, hori da eztabaidatzen dena, zituen Tataren arteko borroka. Prasanta Dasek baino bi hilabete lehenago Haradhan Bag-ek egin zuen bere buruaz beste, hark ere familia osoaren ogibidea zuen lur muturra kendu ziotelako.

Prasantaren amak kazetariari berretsi zien familiak ez zuela onartu dirurik kendutako lurraren ordaintan. “Dirua ez genuen hartu familiak ez duelako lurra utzi nahi”. Hildako semea *Singur Krisibi Jami Raksha Committee* (Singurreko Etxaldeak Salbatzeko Batzordea) elkarteko militantea zen hau antolatuta zenetik.

Lurra multinazionalarentzat opari

Beste askotan bezala Singurreko istilua argitzerakoan lan txukuna egin du ingelesezko Wikipediak. Atal berezietan azaldu ditu Tataren proiektuaren aldekoen eta aurkakoen arrazoiak.

Alde egotekoak handiak dira. 1950eko hamarkadan Mendebaldeko Bengala Indiako estatuen artean industria gehien zutenetakoa zen. Baina Bangladesheko gerrak eta geroago gerrillaren eta militarren kontrainsurgentziaren arteko gatazkak, industriak seko urritzea ekarri omen zuten.

Berrindustrialtzeko erabakian alderdi politiko nagusiak ados zeuden,



agintean dagoen Indiako Alderdi Komunista barne, eta lurrak utzi beharko dituzten nekazariak usinetan lana izango dutela espero dute. Plan horien barruan, Tataren Nano autoa bertan ekoizteak inguruan industria sarea antolatuko duela seguru daude. Horregatik ari dira inguruko estatuak lurrak eskaintzen Tatari, proiektua Bengalatik atera dezan. Gainera, Singurreko lurrok batere baliorik gabeko padurak omen ziren.

Aldiz, proiektuaren kontrakoek diotenez –eta hau Kolkatakako Auzitegi Gorenak berretsi du– 404 hektarea horiek, urtean hiru eta lau uzta ematen zituzten lur oparoak izateaz gain, legez kontra desjabetu zituzten, horretarako erabiliz ingeles kolonia garaiko lege kolonialak, bata 1894koa. Soro horie-

tatik elikatzen ziren milaka herritarretatik 1.000k baino ez du izango lanpostua Tataren lantegian.

Red Barricade aldizkari elektronikoa 2007ko martxoan plazaratu zituen Tatak eta Mendebaldeko Bengalako estatuak egindako hitzarmen ezkutua- ren kontuak. Interneten eskuragai dagoen agirian ikus daiteke lurrak gobernuak erosi dituela eta Tatari utzi 90 urterako. Hitzarmenean ageri da konpainiak urte horien buruan gobernuari 8.000 milioi rupia ordainduko dizkiola, 126 milioi euro.

Baina *Red Barricade* hitzarmena aztertuz aurkitu du lehenbiziko urteetan Tatak ez duela kasik ezer ordainduko, eta kontuan hartuz alde batetik ia mende bateko inflazioa eta bestetik Bengalako gobernuak lurrok erosteko

hartu behar izan duen kreditua, azkenean ateratzen da Mendebaldeko Bengalak kobratu ez baina zeharkako subentzioa emango diola itun horrekin Tatari: 7.000 milioi rupia, 110 milioi euro, opari. “Horri –salatu dute– garapena deitzen diote, baina lapurreta da!”.

Bi urteotan, Singurreko lurrak okupatu, ondeatu eta eraikitze laneak aurrera egin ahala, ugarituz joan dira Tataren kontrako protestak. Mugimendu sozial asko eta Indiako intelektual ospetsu batzuek gain, Trinamool Congress alderdiko Mamata Banerjee ere hurbildu zaie. Elkartasunezko uhinari estatuak salbuespen egoera ezarriz erantzun dio.

Mamata Banerjee parlamentariak 25 eguneko gose greba egin zuen, eta usinaren kontrako aktibistek behin eta berriro gainditu zituzten enpresak eta polizia ezarririk hesiak. Liskarretako baten ondoren, inguruko neska gazte bat bortxatu, jipoitu eta kiskali egin zuten polizia.

Azken asteotan hurbilketa batzuk izan omen dira mugimenduaren buruzagitza hartu duen Banerjeearen eta Tataren proiektua bultzatzen duen gobernuaren artean, nekazari desjabetuei –gutxienik %30 bortxaz atera zituzten beren etxaldeetatik– diru gehiago ematean oinarrituta.

Gurean egunotan prentsak dio Nano, Indiatik zabalduko den auto izarra berandutu egin daitekeela. Agian berandu hura beranduegi izanen da Singurreko laborarientzat. ■

www.argaia.com/nethurbil.php
helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



Z E R B I T Z U A

Beti hurbilago.

Zerbitzu integrala,
pertsionalizatua,
hurbila eta
etengabea.
Horixe
da gure
konpromisoa.

ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani kalea - 20004 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net
TEL.: 943 420 624